

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

ENPLEGU, MERKATARITZA ETA TURISMO SUSTAPENAREN ETA FORU ADMINISTRAZIOAREN SAILA

Foru Gobernu Kontseiluaren 55/2021 Foru Dekretua, abenduaren 28koa. Onestea alda dadila Foru Gobernu Kontseiluaren apirilaren 5eko 26/2011 Foru Dekretua

Gobernu Kontseiluaren apirilaren 5eko 26/2011 Foru Dekretuaren bidez, Arabako Foru Aldundiaren egoitza elektronikoa sortu zen.

Arabako Foru Aldundiak, Diputatuen Kontseiluaren urriaren 6ko 550/2015 Erabakiaren bidez (Foru Administrazioak Internet sarearen bidez ematen dituen informazio eta zerbitzuak erabiltzeko antolaketa eta funtzionamendu arau jakin batzuk aldatzen ditu erabaki horrek), xedatu zuen bere orri elektronikoko guztiek araba.eus domeinua izango zutela. Interneteko araba.eus domeinu berria martxan jartzeak, Arabako Foru Aldundiaren Interneteko presentzia eredu gisa, egoitza elektronikoen erreferentziako helbide elektronikoi eragin zion, eta Arabako Foru Aldundiaren egoitza elektronikoen domeinua aldatzen duen Diputatuen Kontseiluaren otsailaren 23ko 22/2016 Foru Dekretua onestea justifikatu zuen. Hala eta guztiz ere, egoitza elektronikoen arauketan oraindik ezin izan da guztiz txertatu presentzia eredu horren hizkuntza alderdia; izan ere, euskarazko "egoitza" terminoa sartu behar da egoitzaren helbide elektronikoen, gaur egun "araba.eus"-ek aurretik daraman "e-s" terminoaren ordean.

Arabako Foru Aldundiaren Interneteko presentzia ereduari buruz emandako jarraibideez gain, eta Arabako Foru Aldundiaren egoitza elektronikoen eta sarbide puntu elektronikoen orokorraren etorkizuneko araudi berri bat onesteko asmoa gorabehera, une honetan beharrezkotzat jotzen da jarraian azalduko diren aldaketak egitea, bat etorritik Foru Administrazioak Internet sarearen bidez emandako zerbitzuen eta informazioaren antolaketa eta funtzionamendu arauekin, gaur egun indarrean dagoen arau testuari dagokionez, hau da, Foru Aldundiaren egoitza elektronikoa sortzen duen Diputatuen Kontseiluaren apirilaren 5eko 26/2011 Foru Dekretuan.

Lehenik eta behin, 1. artikuluan (Xedea) paragrafo hau kentzen da, egoitzaren ezaugarrietako bat delako: "Arabako Foru Aldundiaren egoitza elektronikoa <https://e-s.alava.net> helbide elektronikoen egongo da eta zuzenean sartzeko modua izango du, bai eta Interneteko www.alava.net atariaren bitartez ere." Ezaugarri horren idazketa eguneratua 3. artikuluan sartuko da, egoitza elektronikoen ezaugarri buruzkoan. Era berean, beharrezkoa da 1. artikuluan hori bera aldatzea, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen 38. artikuluan erreferentzia egin diezaion, herritarrek zerbitzu publikoetarako sarbide elektronikoa izateari buruzko ekainaren 22ko 11/2007 Lege indargabetuaren 10. artikuluan egin ordez.

Bigarrenik, 3. artikuluan (Egoitza elektronikoen ezaugarriak) i apartatuan erakunde atariaren indarreko domeinua aipatu behar da, hau da, <https://web.araba.eus>, eta, horretarako, aldatu egiten da haren idazketa. Era berean, 3. artikuluan horretan bertan beste apartatu bat gehitzen da, k) apartatua, Arabako Foru Aldundiaren egoitzaren erreferentziako helbide elektronikoen egindako aldaketa jasotzen duena, egoitzaren ezaugarrietako bat den aldetik. Helbidea <https://egoitza.araba.eus> izango da aurrerantzean.

Azkenik, xedapen iragankor bat sartzeko da, zeinaren bidez xedatzen baita ezen, baliabide teknikoek eta aurrekontu baliabideek aukerarik ematen ez duten bitartean Arabako Foru Aldundiaren egoitza elektronikoen erreferentziako helbide elektronikora (<https://egoitza.araba.eus>) sartzeko gaur egun <https://e-s.araba.eus> webgunean eskaintzen diren izapide eta zerbitzu

guztiak, izapide eta zerbitzu horiek foru dekretu hau onetsi arte aurreikusitako zehaztapenen arabera ematen jarraituko dela. Horrela, bermatzen da, egoitzaren erreferentziarako helbide elektronikoa berrira teknologia guztia eramaten ez den bitartean, herritarrek Arabako Foru Aldundiarekin harreman elektronikoa izateko gune pertsonalizatu bat izateko duten eskubidea babesten jarraituko dela, egoitza elektronikotik eskuragarri egongo dena, haren bidez beren intereseko espediente, agiri, komunikazio eta jakinarazpenetara sartzan jarraitu ahal izan dezaten, agirien eta datuen trazabilitatearen berri emanez orain arte <https://e-s.araba.eus> domeinuan egin den baldintza eta zehaztapen berberetan.

Hori guztia, hargatik eragotzi gabe arian-arian sartzea lege aplikagarriek ezarritako edukiak eta baldintzak, eta, bereziki, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen Atariko Tituluaren V. kapituluaren egoitza elektronikoetarako aurreikusitakoak.

Foru dekretu honetan genero ikuspegia txertatzen da eta beraren prestakuntzan kontuan eduki dira xedapen orokorrak egiteko prozedura, arau eraginari eta genero eraginari buruzko txostenak egiteko gidak eta araugintza teknikari buruzko jarraibideak onartzen dituen Foru Gobernu Kontseiluaren maiatzaren 23ko 29/2017 Foru Dekretuko xedapenak.

Horregatik, nahitaezko txostenak egin ondoren eta Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren eta Foru Administrazioaren Saileko foru diputatuak proposatuta, Foru Gobernu Kontseiluak gaur bertan egindako bilkuran aztertu ondoren, honako hau:

XEDATZEN DUT

Lehenengoa. Aldatzea Diputatuen Kontseiluaren apirilaren 5eko 26/2011 Foru Dekretuaren 1. artikulua. Aurrerantzean honela geratuko da idatzita:

“1. artikulua. Xedea

1. Dekretu honen xedea Arabako Foru Aldundiaren egoitza elektronikoa sortzea da, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen 38. artikuluan xedatutakoarekin eta dekretu honen 3. artikuluan ezarritako ezaugarriekin bat etorritik.”

Bigarrena. Aldatzea Diputatuen Kontseiluaren apirilaren 5eko 26/2011 Foru Dekretuaren 3. artikulua. Aurrerantzean honela geratuko da idatzita:

“3. artikulua. Egoitza elektronikoaren ezaugarriak

Arabako Foru Aldundiaren egoitza elektronikoa ezaugarri hauekin sortzen da:

- a) Haren identifikazioa egoitza elektronikoaren ziurtagiri baten bidez egiten da.
- b) Herritar guztientzat eskuragarri dago, dohainik eta etengabe.
- c) Haren bitartez eskuratu daitezkeen informazio eta zerbitzuen osotasunaz, egiazkotasunaz eta gaurkotasunaz erantzuten du Arabako Foru Aldundiak.
- d) Priortzio hauek arautzen dute: publizitate ofiziala, erantzukizuna, kalitatea, segurtasuna, eskuragarritasuna, irisgarritasuna, neutraltasuna eta elkarreragingarritasuna.
- e) Behar den guztietan komunikazio seguruak ezartzeko bide ematen duten sistemak dauzka.
- f) Irisgarritasuna eta erabilgarritasuna bermatzen ditu horri buruz ezarrita dauden arauak, estandar irekiei eta, hala badagokio, herritarrek eskuarki erabiltzen dituztenei jarraituz.
- g) Egoitzaren erabiltzaileak gaitzen ditu beste batzuei zenbait izapide telematikoko egiteko baimena emateko, beraiek egin izan balituzte bezalako ondorioekin.
- h) Bere edukiak eta zerbitzuak euskaraz eta gaztelaniaz eskuratu ahal izatea bermatzen du.
- i) Erabiltzaileari egoitza elektronikoa ala <https://web.araba.eus> atariaren gainerakoan dauden bereizteko modua ematen dioten neurriak finkatzen ditu.

j) Pixkanaka, herritarrak Arabako Foru Aldundian kautotzea edo harekin bide elektronikoz harremanak izatea eskatzen duten ekintza, jardunbide eta zerbitzu guztiak barnean hartuko ditu, baita herritarrei zerbitzuak ematerakoan egokitasun, eraginkortasun edo kalitate arrazoiengatik egoitzaren barruan sartzea erabakitzen diren guztiak ere.

k) Arabako Foru Aldundiaren egoitza elektronikoen erreferentziako helbide elektronikoa <https://egoitza.araba.eus> izango da, eta hortik sar daiteke zuzenean edo, bestela, <https://web.araba.eus>. Interneteko atariaren bidez”

Hirugarrena. Aldatzea Diputatuen Kontseiluaren apirilaren 5eko 26/2011 Foru Dekretuaren xedapen iragankorra. Aurrerantzean honela geratuko da idatzita:

“Xedapen Iragankorra

Arabako Foru Aldundiaren gaur egungo <https://e-s.araba.eus> helbide elektronikoko izapideak eta zerbitzuak.

Azkenik, baliabide teknikoek eta aurrekontu baliabideek aukerarik ematen ez duten bitartean Arabako Foru Aldundiaren egoitza elektronikoen erreferentziako helbide elektronikora sartzeko gaur egun <https://e-s.araba.eus> webgunean eskaintzen diren izapide eta zerbitzu guztiak, izapide eta zerbitzu horiek helbide elektronikoen bitartez ematen jarraituko da, zeinetara egoitza elektronikotik sartu baitaiteke, orain arte aurreikusitako zehaztapenen arabera.

Egoitza elektronikoen alta emateko, identifikatzeko eta sartzeko, lehenetsuna emango zaio unean-unean onartutako ziurtagiri elektronikoen erabilerari; pertsona fisikoen kasuan 2012ko urtarrilaren 1etik aurrera, eta pertsona juridikoen kasuan 2012ko irailaren 1etik aurrera.

Data horietatik aurrera, salbuespen gisa, erabiltzaile berriei bertaratuta alta emateko eragiketak egin ahalko dira, bai eta iraupen mugatuko behin-behineko eragiketa gakoak ematekoak ere”

Azken xedapen bakarra

Foru dekretu hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunean jarriko da indarrean.

Vitoria-Gasteiz, 2021eko abenduaren 28a

Diputatu nagusia

RAMIRO GONZÁLEZ VICENTE

Bigarren diputatu nagusiordea eta Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren eta Foru Administrazioaren Saileko foru diputatua

CRISTINA GONZÁLEZ CALVAR

Zerbitzu Orokorren zuzendaria

JAVIER MARDONES GÓMEZ-MARAÑON